Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Bernabe Errasti Ibarzabal

Eskoriatza, Gipuzkoa (1910-2014)



Aurkibidea

Biografia



Eskoriatzako Zapategi baserrian jaiotakoa 1910ean. Eskolara joatea gustuko zuen, baina laster utzi behar izan zuen familiaren egoera ekonomikoa zela eta. 10 urterekin morroi joan zen inguruko baserri batera. XX. mendean zehar egon diren hainbat aldaketa zuzenean bizi izan ditu eta oso azalpen interesgarriak eskaintzen dizkigu.

Zintak

ESK-008

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-06-22
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

ESK-009

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-06-22
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

ESK-022

- **Proiektua**: Eskoriatzako argazki fondoen dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Data**: 2005-01-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: CD

ESK-023

- **Proiektua**: Eskoriatzako argazki fondoen dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Data**: 2005-01-01
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: CD

Pasarteak

1. Bizimodua zenbat aldatu den

- **Erref**: ESK-008/002
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
1910-05-04an jaiotakoa. Bizimodua erabat aldatu da; sinestezina. Bera gaztea zenean, emakumeak tabernara joatea pentsatu ere ez. Gizonezkoak berriz txikiteora joaten ziren. Neskatan ibiltzen zirenean, neskak beraiekin batera sartzen ziren tabernara, baina bestela inondik ere ez. Emakumeak erretzea ere ez zegoen ondo ikusita. Toki batzuetan baina, emakumeak pipan erre izan dute.

Transkripzioa
- Ta ze urtetan esan destazu jaixotakua zarala?
- Neu? Jaixotakua? Mil novecientos diez.
- Maiatzian...?
- Maia... lauen.
- Lauan.

- Orduan, larogeta hamabost urte?
- Larogeta hamabost urte pasauta. Lartxo, e?
- Lartxo ez, ondo.
- Lartxo bai, lartxo.
- Orduan zuk ixa-ixa mende osua Eskoriatza zelan aldatzen juan dan...
- Bai...
- ...ikusi dozu...
- E?
- Ikusi dozula zelan juan dan dana aldatzen, ez?
- Bueno, hori kasik-kasik guk esanda zueik siñestu be ez dozue eitten bizimodue ze kanbixau dan. E? Gure... ni umie nitzenetik aurrera, ba, siñestu be ezin leike ein. Hemen andrak-eta, ba, tabernara-ta pentsau be ez! Bi andra tabernara? Sekula be ez!
- Gaizki ikusitta edo...?
- E?
- Gaizki ikusitta zeuan?
- Ez zan... Ez zan [faten]. Nire ama segurutik gizonakin tabernan ez zan sekula egongo. Gizonak bai, gizonak tabernara faten zien orduen be.
- Bai? Orduan be ohitturia zeuan?
- Bai, bai, gizonak faten zien.
- Ta txikiteua edo ze izaten zan?
- Bueno, gu...
- Orduan bai ala gerora etorri zan?
- E?
- Txikiteo kontuak eta...
- Gero... Ba... Hori andrak-eta tabernara fatiek oin etorri da, e? Oiñao, e? Hemen, e? Hemendik kanpora, porejenplo, Barzelonara hori lehenau be badao, [baiña]. Hemen baiño lehenao etorri zan bizimodua adelanto asko. Baiña hemen lehelengo hola neskak-eta tabernan bi neska ni mutilla nitzenien be ez zan ikusten, e! Sekula pentsau be ez, e! Ta faten ziñen, porejenplo, geu ibili neskakin ta, ba, dantzan ibili ta buelta bat ein ta geuaz zerbeza bat hartu edo kafe bat hartu, sartzen zien, baiña bestela pentsau be ez emakumaik, e! Hemen oin larogei urte ta hola emakumaik... jolin, ikusi balie bi emakuma tabernan, ba... Ta fumetan ikusiko balie, barriz, herrittik be bialduko zittuen.
- Bai, e?
- Bai, bai, bai.
- Hemen fumau-ta emakumak ez dau ein, sin enabargo, lehenau be egongo zan fumetia gure aurretik be.
- Bai, e?
- Ni akordetan naz Asturiasen-ta etxiek hemen be baeukien sukaldia. Ez dakizu? Ta sua bajua zan, lurrien eitten zan sua.
- Bai, beheko sua, ez?
- Beheko sua. Ta tximinixia. Ta Asturiasen, akordetan naz ni, tximinixiak eukitten euen borde bat. Hola, bordetxo bat.
- Bai, halako...
- Bai, holaxe. Badakizu, ezta? Hantxe pipia eukitten euen andrak.
- Andrek, e?
- Andrak. Eta pipie fumetan euen. Ta hemen sekula ez zan ikusi, baiña hemen be denporan baten igual egongo zan, e? Lehenau. Baiña gure akorduan ez, e? Ta andrak fumau hemen sekula ez dau ein ointxe artian.
- Bai, bizimodua asko aldatu da, ez? Eta emakumiak...
- Nik hemen lehelengokua andria trenian ikusi nauena —neu ezkondu ta gero, Vitorixan nabillela, Vitorixatik natorrela— rekadista baten alabia. Zigarrua fumetan [euen]; jente guztia berari begira. Hori el año cincuenta

y… o cuarenta y ocho cuarenta y nueve.

2. Baserriko bizimodua; aldaketa handiak gertatu dira

- **Erref**: ESK-008/004
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:05:15. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Baserria nolakoa zen; auzoa asko aldatu da. Lehenago labrantza handia egiten zen: garia, artoa... Hori ere zeharo aldatu da. Baserrian jasotzen zutenetik bizi ziren. Baserritik kanpo lan egin izan du beti.

Transkripzioa
- Zeure basarrixa-ta zelakuak zian?
- Ba, basarri zahartxo bat. Basarritxo bat, ba, etxe zahar-zahar bat. Oin egongo da, ba, ondo, baiña orduan denporetan, ba… lau pareta ta… ezkatza, sukaldia, ta kuarto bi. Habitaziño bi edo euken. Ta hantxe bizi.
- Inguruan basarri gehixau zeren?
- Ondo-onduen ez. Egongo zien basarrixak, ba, hirurehun metro, bostehun metrora lehelengokua. Bai.
- Eta asko aldatu da auzo hori?
- E?
- Asko aldatu da inguru guzti hori?
- Ba, oin lehenauko antzik be ez dauko. Lehenau, ba, dana hemen labrau eitten zan: garixe erain, artue erain, babia… ezta? Ta oin ez da eraitten. Oin dana piñue edo dau, ezta? Ta, ba, piñu ez dauena, ba, hemen oin… zelaixek daoz beste batzuk ganauendako edo basuek edo, ezta? Baiña oin erain ez da ezebe eitten Gipuzkuan, e?
- Ez, guztiz galdu da hori, ez?
- Nik ez dot ikusten. Hor… telebisiñuan […] sarrittan begira ta labrau ta garixe ta eraindda ta artue ta eraindda nik ez dot ikusten. Ta lehen… lehen, barriz, dana. Auen lur guztia erain eitten zan. Ta bizi gintzen, ba, hortitxik, [hazten gauena] jan.
- Basarrixan bizi izan ziñan gazte izan arte, ezkondu arte ala noiz arte?
- Bueno, ba, nik lanien-ta kanpuen sarri, ezta? Baiña, ba, ezkondu arte baserrira faten nitzen betik hemen ninguenien, e? Betik baserrira. Baiña lana kanpuen betik.
- Oseake… hori nahi neban esatia… basarrittik kanpo ein izan dozu lana?
- Bai, etxien arrebia euki nauen. Etxien egon zan, ezta? Ta, ba, neu kanpuen ibiltten nitzen lanien. Ba, geu kanpuen, ezta? Baiña gabien etxera.

3. Umetan morroi joandakoa beste baserri batera

- **Erref**: ESK-008/005
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
10 urterekin morroi joan zen inguruko baserri batera. Baserri handia zen eta oso gustura pasa zituen urte batzuk. 13 urteren bueltan, Bergarara joan zen morroi.

Transkripzioa
- Eta zenbat urtekin hasi ziñan lanian kanpuan, basarrittik kanpo?
- Joe... Hamar urteaz kriau.
- Juan ziñan?
- Bai.
- Nora? Inguruko basarriren batera?
- Bai, basarri batera. Baiña ondo egon nitzen, etxien baiño hobeto han.
- Bai, e?
- Etxien baiño hobeto, basarri ona zan... [...] ba, gu pobriauek gintzen ta, ba, haik... ondo egon nitzen. Baiña hamabi urte kunplidu baiño lehenao gero fan nitzen Bergarara kriau atzera. Han, barriz...
- Gaizki?
- Gaizki, ba... Onbre, bestien moduen ez, behintzet.

4. Umetako lanak baserrian

- **Erref**: ESK-008/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Umetan baserrian lan asko egin behar izaten zuten. Gariaren inguruko lanak. Lan asko eta gutxi hartu. Baserri guztiak ez ziren berdinak, eta beraiena txikitxoa zen.

Transkripzioa
- Eta basarrixan, orduan, umetan lan ein biharko zenduen, ez?
- Lana?
- Esan dozu solo haundixak eta...
- Lana, ya lo creo, lana! Besteik ezebez.
- Besterik ezer?
- Lana, ta jan gutxi.
- Ta ze eitten zenduen? Gari-ereitten ibiltzen ziñan ala...?
- E?
- Garixa erein, artua...?
- Ba, garixa ereitten zan ta gero heltzen zanien ebagi eitten zan. Ta eskuekin ebaten zan, gaiñera, garixe. Ezta? Ez oingo bezela makiñiekin ta, eskuekin ebaten zan.
- Lan asko, ez?
- E?
- Lan asko....

- Las asko. Ba, gero ha trillau eitten zan [larriñak ein] esaten otsien, eitten zan. Ez dakizu? Ta gero garbittu ta lan asko eukitten euen garixek, e! Han lan asko, e! Ta gutxi hartu.
- Ta gutxi hartu?
- Gutxi hartu. Gurien, behintzet, e! Beste batzutan gehixao hartuko zan. [Eta] baserri danak iguelak ez zien orduen be, e! Orduen be ointxe leetxe, ba, baserri onak baeuezen txarrak be bai, e? Guria, ba, [atzenien], ba, txikitxo bat zan. Bai.

5. Etxejabeari errenta nola ordaintzen zitzaion

- **Erref**: ESK-008/008
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Baserri gehienak errentero bezala bizi ziren. Gerora, poliki-poliki, baserritar gehienak baserria erosi zuten. Errenta, hasiera batean, gariarekin ordaintzen zen. Garai hartan, lantegi gutxi zeuden herrian ere, eta ez zen erraza bizimodua ateratzea. Kapoiak ere ematen zizkioten etxejabeari urtero Gabonetan. Etxejabearen administraria.

6. Erromeria ezagunak inguruan

- **Erref**: ESK-008/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Aita Gatzagakoa, baina sarritan kanpoan lanean ibilitakoa. Lehenago, inguruko herrietakoak ere ez ziren ezagutzen. Erromeria ezagunak inguruan.

7. Gatzagako erromeria; trena eta Gasteizko feria

- **Erref**: ESK-008/011
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:20:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Erromeriak betidanik egon izan dira. Gatzagako jai nagusia irailean izaten da eta berak betidanik ezagutu du bertako erromeria. Otxandio eta inguruko herrietatik gainera jende asko joaten zen Gatzagara oinez. Eskoriatzara jendea nondik etortzen zen. Trena noiz ipini zen ongi gogoratzen du. Gasteizen zein egunetan izaten zen feria; aita sarritan joaten zen Eskoriatzatik bertara oinez, trena egon aurretik.

8. Aita, trenbidean lan egindakoa

- **Erref**: ESK-008/012
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:20:10. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:
Aitak trenbidean lan egin zuen. "Trozue" zaindu behar izaten zuen. "trozuetan lana". Gaztetan ere ikazkin ibilitakoa ezkondu aurretik. Trenbideko lana nolakoa zen. Lan-baldintzak; orduka kobratzen zen. Neguko hilabetetan, lanik ez.

9. Trenbidearen ibilbidea; lehenengo trena

- **Erref**: ESK-008/013
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:26:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:
Bernabe mutikotxoa zenean hasi zen trenbidea egiten. Lehenengo trena noiz etorri zen ongi gogoratzen du. Trenbidearen ibilbidea. Trenari buelta ematen zitzaion. Gerora Gasteiz-Maltzaga ibilbidea osotu zen. Lurrunezko trena; tren elektrikoa.

10. Trenaren inguruko kontuak

- **Erref**: ESK-008/014
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:27:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Trenaren inguruko kontuak. Korreoa ekartzen zuten trenez; merkantziak gerora hasi ziren trenez garraiatzen. Merkantziak eramateko indarrik ez trenak.

11. Ume-umetatik, ahal zen bezala bizimodua aurrera ateratzen

- **Erref**: ESK-008/015
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:27:50. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Umetako kontuak. Morroi ibilitakoa umetan; gerora kanpoan ere lanean ibilitakoa. Lantegiak hasi zirenean Eskoriatzan, hemen ere jardun zuen. Bera gaztea zenean, mutiko asko kanpora joan behar izaten ziren lanera, Castilla aldera edo ahal zen tokira.

12. Baserriko umeak eta eskola

- **Erref**: ESK-008/016
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:31:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Eskolara gutxi joandakoa. Lehenagokoek, eskolarik ez zela behar uste zuten. Eskoriatzan klausurako mojak zeuden garai batean, eta 6 urte aurreko mutikoak bertara joaten ziren eskolara. Gerora, maistroarengana pasatzen zituzten mutilak. Baserrian lanik ez zegoenean joaten zen eskolara. Gau-eskolak negu aldean izaten ziren.

13. Herriko eskola; auzoetako eskolak

- **Erref**: ESK-008/017
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:31:25. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Eskolan zer ikasten zuten. Arrosarioa errezatzen zuten. Okerren bat eginez gero, makilakada bat jasotzen zuten. Kanpotik etorritako irakasleak ziren denak. Auzoetan, sakristauek ematen zituzten klaseak, eta sarritan bertakoak izaten ziren, euskaldunak. Herriko eskolan horrelakorik ez du ezagutu gerra ingurura arte.

14. Etxejabe handiak Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-008/018
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:33:40. **Bukatu**: 00:36:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Neskak mojetan ikasteko aukera. Herriko eskola. Mutikoa zenean, herria oso txikia zen. Familia guztiak elkar ezagutzen ziren. Familia aberats batzuk ere bazeuden, urtean zehar kanpoan bizi zirenak eta udan bertara etortzen zirenak. Etxejabe handiak ziren gainera; baserri asko zituzten beraien esku.

15. Eskola kontuak; hezkuntza errepublika garaian

- **Erref**: ESK-008/019
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:36:55. **Bukatu**: 00:41:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Eskola kontuak. Klaseak erdaraz izaten ziren. Bera umea zenean, irakasle euskaldunik ez zegoen Eskoriatzan. Errepublika garaian maisu-etxeak egin ziren auzo gehienetan. Umeen artean eskolan erdaraz egin behar izaten zuten; diziplina handia. Errepublikaren ondorenean etorri zen askatasun pixka bat eskolan ere. Primo de Riveraren diktadura.

16. Eskola kontuak; fraideak Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-008/020
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:41:15. **Bukatu**: 00:46:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Eskolan gauza gutxi ikasteko aukera; oso gazterik utzi behar izan zuen eta. Gerora, bere kabuz ikasitakoa gau-eskolan... 14 urtera arte izaten zen eskola gehienez. Marianistak (maristak?); San Viatoristak Eskoriatzan.

17. Umetako bizimodua; dotrina

- **Erref**: ESK-008/021

- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:46:10. **Bukatu**: 00:50:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Umetako jolasak. Astegunetan lan egin behar izaten zuen eskolatik irtendakoan; igandetan bakarrik izaten zuten denbora jolasean ibiltzeko. Dotrinara ere joan behar izaten ziren. Dotrinara joateko kanpaiak jotzen zituzten 3 bider, abisu bezala. Dotrina Parrokian ematen zuten. Amak ere etxean erakusten zien dotrina. Amak ez zuen eskolarik, baina dotrina osoa buruz zekien.

18. Erlijioaren indarra

- **Erref**: ESK-008/022
- **Iraupena**: 0:05:05. **Hasi**: 00:50:20. **Bukatu**: 00:55:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Lehenengo jaunartzea. Konfesatzera joatea ere derrigorrezkoa zen. Abadeen sermoiak gogorrak izaten ziren. Errespetua baino, beldurra izaten zitzaion abadeari. Ezkondutakoan, familia ekartzea derrigorrezkoa, bestela abadeak gogor egiten zuen.

19. Abade, mediku eta botikariari urtero garia

- **Erref**: ESK-008/023
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:55:25. **Bukatu**: 00:57:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Baserritarrek abadeari urtero-urtero zerbait entregatzen zioten (garia). Botikariari ere garia ematen zitzaion; medikuari ere.

20. Medikua zaldiz baserrietara

- **Erref**: ESK-008/026
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:59:45. **Bukatu**: 01:01:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Medikua baserriz baserri ibiltzen zen zaldiz. Medikuaren lana.

21. Erlijioaren indarra gizartean

- **Erref**: ESK-009/002
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:
Medikuari, abadeari edo botikariari berorika egiten zitzaien; errespetu handia. Abadeen indarra gizartean. Eliza paretik pasatzerakoan aitaren egin behar izaten zen; poliki-poliki ohitura guzti horiek galtzen hasi ziren.

22. Elizkizunak; kofradiak

- **Erref**: ESK-009/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Klase desberdinetako elizkizunak. Kofradien inguruko azalpenak.

23. San Joseko kofradia

- **Erref**: ESK-009/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Elizako kofradiak. 13 urterekin kofradian sartzeko obligazioa zegoen. San Joseko kofradia.

24. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak

- **Erref**: ESK-009/006
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:11:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Ehorzketak goizetan izaten ziren. Hiletara etortzen ziren senide eta lagunei bazkaria ematen zitzaien. Gastu handia izaten zen. Gerraostean ehorzketak arratsaldez egiten hasi ziren eta ohitura horrekin amaitu zen.

25. Umetan morroi joandakoa (I)

- **Erref**: ESK-009/008
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:12:25. **Bukatu**: 00:16:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Umetan morroi joandakoa, 12 urterekin. Orduan egin behar izaten zituen lanak aipatzen ditu; lurketa, esate baterako. Gabonetan itzultzen zen etxera; ohitura zaharrak (bakailaoa etxera).

26. Umetan morroi joandakoa (II)

- **Erref**: ESK-009/009
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:18:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Umetan morroi joandakoa; Gabonetan itzultzen zen etxera eta orduko ibilerak.

27. Umetako ibilerak

- **Erref**: ESK-009/010
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:18:05. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Umetako ibilerak. Morroi joan zeneko kontuak.

28. Umetako kontuak; okerkeriak

- **Erref**: ESK-009/013
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:20:30. **Bukatu**: 00:22:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Morroi egon zeneko kontuak. Neskatan-mutiletan. Umetako okerkeriak.

29. Neskatan-mutiletan; erromeriak

- **Erref**: ESK-009/015
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:24:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Neskatan-mutiletan. Erromeria kontuak. Elosun, 14 urtetik beherakoak, ezin izaten ziren erromeriara joan.

30. Umetako bizimodua baserrian; aldaketak

- **Erref**: ESK-009/016
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:24:10. **Bukatu**: 00:27:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Morroi egon zen 4 urtean eta ondoren etxera itzuli zen. Orduko oroitzapenak. Lehenago lur-sail guztiak erein egiten ziren; gaur egoera oso desberdina da. Baserriko bizimodua aldatzen hasi zen poliki-poliki: jendea lantegietan hasi zen lanean...

31. Gaztetako ibilerak

- **Erref**: ESK-009/017
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:27:55. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Gaztetako ibilerak. Erromeria kontuak. Elosun 14 urtetik beherako umeak ezin izaten ziren erromeriara joan. Mendi-erromeriak; San Pedroak.

32. Gaztetako ibilerak; jai giroa

- **Erref**: ESK-009/018
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:29:50. **Bukatu**: 00:31:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Gaztetako ibilerak. Herriko jaiak; musika. Inguruko herrietako giroa: Arrasate; Eibar... Pilota partidak Eibarren.

33. Mendi-erromeriak (I)

- **Erref**: ESK-009/019
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:33:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Mendi-erromeria ezagunak inguruan: Atxorrotz; San Adrian, etab. Ilundu aurretik amaitzen zen musika.

34. Mendi-erromeriak (II)

- **Erref**: ESK-009/020
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:33:25. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Mendi-erromeriatan dantza egiteko mutilek ordaindu egin behar izaten zuten. Soinujolea. Neskei dantza egitea nola eskatzen zitzaien azaltzen du.

35. Dantzaldia herriko plazan

- **Erref**: ESK-009/021
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Musika igandetan egoten zen. Inguruko jai garrantzitsuak noiz izaten ziren; San Bernardo.

36. Musika banda Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-009/022
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:37:40. **Bukatu**: 00:40:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Musika banda Eskoriatzan; musika igandetan egoten zen.

37. Zinea Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-009/023
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:40:20. **Bukatu**: 00:41:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Gerra aurreko urteetan ez zen zinerik egon Eskoriatzan; gerraostean non ipini zuten. Inguruko herrietara ere joaten ziren pelikulak ikustera.

38. Inguruko herrietara jai egunetan

- **Erref**: ESK-009/024
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:43:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Inguruko herrietara joateko joera handia zuten. Auto gutxi zegoen garai batean; alokairuko automobil bat zegoen herrian; taxia.

39. Gaztetako kontuak

- **Erref**: ESK-009/025
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:43:35. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Umetan fraka motzak erabiltzen zituzten, 14 urte ingurura arte. Gerora, fraka luzeak janzten zituzten. Alokairuko autoak Eskoriatzan.

40. Eibar gerraostean

- **Erref**: ESK-009/026
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:47:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Eibarko giroa gerraostean. Frontoian pilota partidak ikusten zituzten; ondoren, dantza egoten zen. Inguruko herrietan nola ikusten zuten Eibar. Herriaren nortasuna. Gaztetako ibilerak.

41. II. Errepublikaren aldarrikapena

- **Erref**: ESK-009/027
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:47:40. **Bukatu**: 00:51:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
II. Errepublikaren aldarrikapena. Berak 20 urte zituen, eta eguna nola gogoratzen duen kontatzen du.

Transkripzioa
- Esan dozu lehen, Republika sasoia ta. Goguan dakazu errepublikia noiz proklamau zan?
- Ene Maria ta Jose! Nik hogei urte neuken.
- Eta? Ze...?
- Republikia urten auenien.
- Ta gogoratzen dozu ondo?
- Bai, lehengotik zer apur bat, baiña ez, diferenteik izebez e.
- Hemen e...
- Republikia urten auen ta erregiak hanka ein auen hemendik ta izebez ez zan pasau hemen. Batzuek esaten daue, ba ostie baiña nik ez dot pentsetan.
- Hainbeste aldatu zanik?
- Ez, ez, ez. Jentiak, notau, ba beti igertzen zan libertade gehitxuau edo zer, baiña ez hori jentiak esaten dauen diferentzioi ez. Republikie urten auenien ni Mondraguen nabillen lanien, biherra eitten nauen Mondrauen. Ta hamaiketan ero holaxe urten gauen lanetik, Republikia urten auen egunian. Ta gero, jai emon oskuen.
- A bai e?

- Bai. Atzaldien iñobe ez zan fan lanera orduen egunien.
- Orduen egun haundixa ez?
- Bai, bai, bai. [Hauraxe egunien]. Ta Unión Cerrajera-n, han zera euen, sirenia egoten zan ta Unión Cerrajera-n sirenie jo euenien Mondragueko danak kalera. Mondraueko obreroik iñobe ez zan geldittu urten barik.
- Orduan jai eguna eta zelebraziñoren bat be egongo zan, ez, gauza espezialen bat?
- Gero jai, gero juerga egun guztia.
- Behintzat ondo hasi zenduen ez, Republika sasoia?
- Bai, bai, bai, baiñe askok esaten daue, hau pasau zuan ulixe lekutan, nik ez dot pentsetan. Nik ez dot pentsetan hainbesteraiño egon zanik. Batzuk esaten daue ulixe lekutan-eta, Eibarren-eta, egon ziela, baiñe Eibarren egon gitzen gu orduen egunien, bizikeletakin fanda. Mondrauen bazkaldu eta Eibarreraiño joan bizikeletakin, ez dakitzu? Ta guk Eibarren kalien ibili gitzen eta nik ez nauen ikusi han ezebe ezebe. Ta nik ez dot pentsetan, jen7iek esan gehixau eitten dau.
- Noiz baiña, Errepublika proklamau zan egunien bertan?
- Bertan egunien. Bertan egunien, atsaldien Mondrauen bazkaldu eta lau fan gitzen bizikeletakin Eibarreraiño.
- Ez, ez zauen giro espezialik edo.
- Keba!
- Jendia han Untzaga plazan
- Ezebez, ezebez
- Manifestaziñorik eta ezebez, ez jatzun tokau?
- Guk ez gauen ikusi. Gu han egon gitzen, han ez zan egon ezebe. Jentiek esan eitten dau asko gehixau egon zan baiño, izen zan baiño. Hori diferentzioi jentiek ez euen hartu, e. Jentiek baekixen, ba, urten euen Republikiek eta jentie ez zan sublebau ez zan ezebe zertu. Izengo zan, por ejenplo, Erregie bertan geldittu eta frente eiñ edo, orduen zerbait izengo zan ezta, baiñe zela hanka eiñ euen Erregiek, Españan ez zan ezebe pasau.
- Ez pasau ez, baiña jentian zelebraziñuak edo …
- Bai, ba, batenbatzuk tabernetan eta onenien biba batzuk izengo zien, ez dakitzu? baiñe, ez, ez, ez, ez. Eibarren behintzat orduen egunien jaleoik ez. Guk ez gauen ikusi. Oin ba, gu etorri ein gitzen bueltie einde denporaz eta ez dakigu gero ze pausa zan gabien. Ezin neike esan, baiña ez dot pentsetan.

42. Gaztetatik lanean

- **Erref**: ESK-009/028
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:51:10. **Bukatu**: 00:52:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Lan-kontuak. Non hasi zen lanean; zer egiten zuen.

43. Industria Eskoriatzan; immigrazioa

- **Erref**: ESK-009/029

- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:52:55. **Bukatu**: 00:55:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Lantegi garrantzitsuak Eskoriatzan gerra aurretik; gerraostean sortutakoak. Gerraosteko egoera: kanpotik jende asko etorri zen lanera; etxerik ez guztientzat... Gerraosteko urteetan eman ziren aldaketak. Immigrazioa; integrazioa.

44. Kooperatibismoa

- **Erref**: ESK-009/030
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:55:50. **Bukatu**: 00:56:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Kooperatiben sorrera. Kooperatibismoa Eskoriatzan.

45. Mendizaletasuna

- **Erref**: ESK-009/033
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:58:40. **Bukatu**: 01:00:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Nagusitan mendira joateko zaletasun gutxi.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com